



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko azaroaren 9an

16 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

- 1986ko urriaren 10eko Nafarroako Errepideen Babesari buruzko 11/86 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (2. or.).
- Foru Lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (2. or.).
- Oinarritzko irakaskuntzarako testu liburua arautzeko Foru Lege proposamena. Osoko Bilkurak bazter utzia (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nazioko Gobernuari eskatu diote gutxieneko pentsioak eta kotizaziorik gabekoak igo ditzala 1999ko ekitaldian. Osoko Bilkurak bazter utzia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez Foru Diputazioa premiatzen da egungo merkataritza-banaketari buruzko azterlan bat egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sasoikako langileei laguntza emateko Foru Plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen da gudu zibilean parte hartu zutenen espedienteak guztiz errehabilitatzeko neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- Nafarroako Kontseiluko bost kide, Nafarroako Parlamentuaren ordezkari direnak, izendatzea (5. or.).

#### H SAILA:

##### **Bestelako testu arau-emaileak:**

- Nafarroako Foru Komunitateko errepede handien etorkizunari buruzko ikerlan bat, bereziki A-15arenari buruzko Batzorde Bereziaren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arauak (6. or.).
- Gazteentzako politika orokorreari buruzko ikerlan bat egiteko Batzorde Bereziaren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arauak (7. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**1986ko urriaren 10eko Nafarroako Errepideen Babesari buruzko 11/86 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Biltzarrak, 1999ko urriaren 27an egindako Osoko Bilkuran, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztutako 1986ko urriaren 10eko Nafarroako Errepideen Babesari buruzko 11/86 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen.

Proposamen hori 1999ko irailaren 17ko 3 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**Foru Lege proposamena, pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Biltzarrak, 1999ko urriaren 27an egindako Osoko Bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztutako pentsioen kopuruak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko osagarriak jarri eta beste laguntza-prestazio batzuk hobetzeko Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen.

Proposamen hori 1999ko irailaren 17ko 3 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua arautzeko Foru Lege proposamena**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Biltzarrak, 1999ko urriaren 27an egindako Osoko Bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua arautzeko Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen.

Proposamen hori 1999ko irailaren 17ko 3 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nazioko Gobernuari eskatu diote gutxieneko pentsioak eta kotizaziorik gabekoak igo ditzala 1999ko ekitaldian**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nazioko Gobernuari eskatu diote gutxieneko pentsioak eta kotizaziorik gabekoak igo ditzala 1999ko ekitaldian". Biltzarrek, 1999ko urriaren 27an egindako Osoko Bilkur-

ran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 1999ko irailaren 23ko 4 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**Mozioa. Horren bidez Foru Diputazioa premiatzen da egungo merkataritza-banaketari buruzko azterlan bat egin dezan**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

«Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez Foru Diputazioa premiatzen da egungo merkataritza-banaketari buruzko azterlan bat egin dezan". Biltzarrek, 1999ko urriaren 27an egindako Osoko Bilkuran, aurkeztutako mozioa baztertu

zuen. Mozio hori 1999ko urriaren 7ko 8 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sasoikako langileei laguntza emateko Foru Plan bat egin dezan**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Osoko Bilkurak 1999ko urriaren 27an hurrengo erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sasoikako langileei laguntza emateko Foru Plan bat egin dezan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez,

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Erabakia. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sasoikako langileei laguntza emateko Foru Plan bat egin dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2000ko otsailaren 1a baino lehen sasoikako langileei laguntza emateko premiazko Plan bat egin dezan. Plan horretako puntu garrantzitsuetako bat izanen litzateke alokairuko etxebizitzaren eta sasoikako langileek erabiltzeko bizitokien sarea sortzea.

Aipatutako sarea sortzean, gutxienez, ondorengo baldintzak izan beharko lirateke kontuan:

– Nafarroako Gobernua izanen litzateke, bizigarrtasun baldintzak aztertu ondoren, etxebizitza partikular bat sarean sartzea erabakiko lukeena. Alokairuaren kostuaren zati bat diruz laguntzeko konpromisoa hartuko luke, aldezturik egiaztaurik legezko egoeran dauden langileek darabilte-

la, eta alokatutako etxebizitzetan izan litezkeen kalteei eta apurketei aurre egiteko laguntzak ematen litzuzke.

– Enplegu emaileak eskabidea zuzenduko dio Nafarroako Gobernuari -bai zuzenean bai nekazaritzako erakundeen, kooperatiben edo sindikatuen bidez-. Bertan eskatuko du etxebizitza bat alokatzeko bere ustiatzean lan egin behar duten langileei. Nafarroako Gobernuak eskabidea kalifikatuko luke, etxebizitza eman, aldezturik lan kontratuak ikusirik, eta eskatzaileen eta onuradunen (langileen) egoera ekonomiko-soziala aztertuko luke, dirulaguntzaren zenbateko zehaztearren.

– Sarean, etxebizitza partikularrez gain, beste alternatiba batzuk ere egonen lirateke, hala nola udalen titularitateko lokalak. Lokal hauek birgaitu daitezke, bai gizarte garantiako enplegu programen bidez bai INEMekiko hitzarmenen bidez bai tailer eskolen bidez, eta urtean zehar beste erabilera batzuetarako baliatzen ahal dira. Aukera hau errazteko, Nafarroako Gobernuak hitzarmen bereziak egiten litzuzke toki entitateekin.

### **Erabakia. Horren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen da gudu zibilean parte hartu zutenen espedienteak guztiz errehabilitatzeko neurriak har ditzan**

#### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Osoko Bilkurak 1999ko urriaren 27an hurrengo erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen da gudu zibilean parte hartu zutenen espedienteak guztiz errehabilitatzeko neurriak har ditzan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Erabakia. Horren bidez Diputatuen Kongresua premiatzen da gudu zibilean parte hartu zutenen espedienteak guztiz errehabilitatzeko neurriak har ditzan**

1. Nafarroako Parlamentuak Diputatuen Kongresua eta Espainiako Estatuaren Gobernua pre-

miatzen ditu gerrillako borrokalarien –bizirik iraun zutenen eta errepresioak hil zituenen edo heriotza naturalez zendu zirenen– espedienteak guztiz errehabilitatzeko neurriak har ditzaten. Espediente horietan gaizkile eta bidelapurtzat jotzen dira. Parlamentuak eskatzen du, orobat, espediente hauek artxibo historiko baten –gerraren eta erbestearen oroitzatza gordeko duen baten– zati izan daitezela eta desager daitezela betiko Guardia Zibilaren artxiboetatik eta artxibo militarretatik.

2. Faxismoaren aurka borrokatu zireneko garai militarra aintzat hartzeko neurriak har ditzala Estatuaren Gobernuak, bere eskumenaren esparruan; horren ondorioz, herritar talde honek pentsioak jasotzea erregularizatuko da.

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Kontseiluko bost kide, Nafarroako Parlamentuaren ordezkari direnak, izendatzea**

Nafarroako Parlamentuak, 1999ko urriaren 27an eginiko Osoko Bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Kontseiluko partaide hurrengo pertsona hauek izendatzea:

- Enrique Rubio Torrano jauna
- Pedro Charro Ayestarán jauna
- Joaquín Salcedo Izu jauna

- José María San Martín Sánchez jauna
- Alfonso Zuazu Moneo jauna

Biltzarreko Erregelamenduaren 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadila agintzen da.

Iruñean, 1999ko urriaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

## **Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizunari buruzko ikerlan bat, bereziki A-15arenari buruzko Batzorde Bereziaren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arauak**

Nafarroako Parlamentuaren Mahaiak, Bozerramaileen Batzarrari entzun ondoren, 1999ko azaroaren 2an egindako bilkuran honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizunari buruzko ikerlan bat, bereziki A-15arenari buruzkoa, egiteko Batzorde berezia sortzea.

**2.-** Aipatu batzorde horren osaketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arau hauek onestea:

Lehenengoa.- Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizunari buruzko ikerlan bat, bereziki A-15arenari buruzkoa, egiteko Batzordea sortzen da. Batzorde hori berezia izanen da, eta xede izanen du Nafarroako Foru Komunitateko errepide handien etorkizunari buruzko ondorioak atera eta aholkuak ematea.

Bigarrena.- Batzordea Parlamentuko talde bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute, baina badago muga bat: talde bakar batek ere ez dezala izan batzorde berezi honetan, Parlamentuko ohiko batzordeetan dituen kideak baino kide gehiago.

Hirugarrena.- Batzordea osatzeko bilkura Biltzarreko Mahaiak erabakitzen duen egunean egingen da, Parlamentuko taldeek haien ordezkariak izendatu ondoren.

Laugarrena.- Osatzeko bilkuran batzordeko lehendakaria hautatuko da. Lehendakaria bertan egon ezean, Parlamentuko bere taldeko kide batek, batzordekidea bera, ordezkatu du, edo,

bestela, haren ordezeko gisa kreditatu denak. Batzordeari laguntzen dion legelari bera izanen da batzordeko idazkari.

Bosgarrena.- Batzordeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabakiak. Horretarako, bere taldea hainbeste parlamentariok osatu, horrenbeste boto izanen ditu batzordeko bozerramaile bakoitzak.

Seigarrena.- Batzordeak Nafarroako Gobernuari laguntza eskatu ahalko dio. Lehendakariari eskatu ahalko dio, hain zuzen ere, egin beharreko txostenak egin daitezen eta eskumena duten kargu eta funtzionarioak bertan azal daitezen. Ikerketa egindakoan, batzordeko lehendakariak Mahaiari eta Bozerramaileen Batzarrari igorriko die.

Zazpigarrena.- Agindutako lana bukatu edo Mahaiak batzordea desegitea erabaki arte jarraituko du batzordeak bere eginkizunak betetzen.

Zortzigarrena.- Antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, arau hauetan aurreikusi ez den guztia Biltzarren Erregelamenduak, oro har, batzorde berezietarako arautu duena izanen da kontuan; hor ere ez badago araurik, Erregelamenduak ohiko batzordeetarako arautu duena aplikatuko da.

**3.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko azaroaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Gazteentzako politika orokorrei buruzko ikerlan bat egiteko Batzorde Bereziaren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arauak**

Nafarroako Parlamentuaren Mahaiak, Bozera-maileen Batzarrari entzun ondoren, 1999ko azaroaren 2an egindako bilkuran honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.-** Gazteentzako politika orokorrei buruzko ikerlan bat egiteko Batzorde berezia sortzea.

**2.-** Aipatu batzorde horren osaketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko arau hauek onestea:

Lehenengoa.- Nafarroako Parlamentuan, Gazteentzako politika orokorrei buruzko ikerlan bat egiteko Batzordea sortzen da. Batzorde hori berezia izanen da, eta xede izanen du ikerlan bat egitea, gazte nafarrak direla-eta Nafarroako Administrazio Publikoak sustatzen dituen politikak nabarmen hobetzearen.

Bigarrena.- Batzordea Parlamentuko talde bakoitzeko bi ordezkari osatuko dute, baina badago muga bat: talde bakar batek ere ez dezala izan batzorde berezi honetan, Parlamentuko ohiko batzordeetan dituen kideak baino kide gehiago.

Hirugarrena.- Batzordea osatzeko bilkura Biltzarreko Mahaiak erabakitzen duen egunean egiten da, Parlamentuko taldeek haien ordezkariak izendatu ondoren.

Laugarrena.- Osatzeko bilkuran batzordeko lehendakaria hautatuko da. Lehendakaria bertan egon ezean, Parlamentuko bere taldeko kide batek, batzordekidea bera, ordezkatu du, edo, bestela, haren ordezeko gisa kreditatu denak.

Batzordeari laguntzen dion legelari bera izanen da batzordeko idazkari.

Bosgarrena.- Batzordeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabakiak. Horretarako, bere taldea hainbeste parlamentariok osatu, horrenbeste boto izanen ditu batzordeko bozera-maile bakoitzak.

Seigarrena.- Batzordeak Nafarroako Gobernuari laguntza eskatu ahalko dio. Lehendakariari eskatu ahalko dio, hain zuzen ere, egin beharreko txostenak egin daitezen eta eskumena duten kargu eta funtzionarioak bertan azal daitezen. Ikerketa egindakoan, batzordeko lehendakariak Mahaiari eta Bozera-maileen Batzarrari igorriko die.

Zazpigarrena.- Agindutako lana bukatu edo Mahaiak batzordea desegitea erabaki arte jarraituko du batzordeak bere eginkizunak betetzen.

Zortzigarrena.- Antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, arau hauetan aurreikusi ez den guztia Biltzarren Erregelamenduak, oro har, batzorde berezietarako arautu duena izanen da kontuan; hor ere ez badago araurik, Erregelamenduak ohiko batzordeetarako arautu duena aplikatuko da.

**3.-** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko azaroaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

|   |  |
|---|--|
| <p style="text-align: center;"><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b></p> <p><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urte bat..... 6.000 pta.<br/>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 140 ».<br/>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 175 ».</p> | <p style="text-align: center;"><b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b></p> <p style="text-align: center;"><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p style="text-align: center;">«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p style="text-align: center;">Arrieta 12, 3<br/>31002 IRUÑA</p> |
|---|--|